


PROGRAMA  
EUSKERA

URTARRILA OTSAILA MARTXOA 2023



gizartea eta kultura  
garaikidea

AZKUNA  
ZENTROA  
ALHÓNDIGA  
BILBAO

Bilbao



# Erakusketaren saioa (1977-2017)

Komisariotzako Nazioarteko Sinposioa

Azkuna Zentroak - Alhóndiga Bilbaok eta Bulegoa z/b-k *Erakusketaren saioa (1977-2017)* mintegiko azken topaketa antolatu dute. Komisariotzaren Nazioarteko Sinposioak lau hamarkadetako erakusketak aztertzea du helburu. 2016. eta 2023. urteen artean egindako bost topaketetan, hogeita hamar bat irakurketa bildu dira, historia hurbileko erakusketei buruz. Irakurketa horiek aukera ematen dute erakusketaren hainbat alderditara hurbiltzeko: erakusketaren baldintza historikoei erantzuten dien objektu kulturala, hartzen dituen irudikapenak legitimatzen dituen forma instituzionala, etenei eta arreta-uneei bide emateko moduko gailu iragankorra.

Bosgarren edizio honek amaiera emango die bi datek zehaztutako aldian egindako erakusketen azterketan ardaztutako topaketei: 1977a, Franco "Bifo" Berardiren hitzetan, "etorkizunaren ondokoari" hasiera ematen dion urtea; eta 2017a, 2023tik ikusita, harritzekoa bada ere, urrun eta aldi berean hurbil dagoen data.

Azken edizio honek 2007-2017 hamarkada du ardatz. Urte horiek bat datoz krisialdi globaleko une batekin, "paradigma berri" baten hasierarekin, 2007-2008ko finantza-krisiarekin abiatu, hurrengo hamarkadako herritarren protesta-mugimenduekin jarraitu -Udaberri arabiarra, 15M, Occupy Wall Street, Black Lives Matter, laugarren bolada feminista, LGBTIQ+ mugimendua-, eta gobernu populisten boterera igoera hurrengo hamarkadan, gaur egunera arte.

## OTSAILAK 8 ETA 9

---

Bastida Aretoa

Sinposioaren prezioa:  
85€ / 70€ AZ Txartelarekin

---

Honekin lankidetzan eginda:

## Bulegoa z/B



### **FRÉDÉRIQUE BERGHOLTZ**

If I Can't Dance, I Don't Want To Be Part of Your Revolution plataforma kuratorialaren sortzaileetako bat eta zuzendaria; Amsterdamen egoitza duen plataforma honek arte eta ikerketarekin lotutako performancea ekoizten du.



### **AZAR MAHMOUDIAN**

Komisarioa eta hezitzailea. Haren ikerketak aztertzen du nola bihurtzen diren azpiegitura lotura transhistorikoak, denbora eta belaunaldien arteko memoria.



### **ARANTZA SANTESTEBAN**

Historialaria, zinemagilea eta ikertzailea. Besteak beste, *Passatgeres* (2012), *Euritan* (2017) eta *918 gau* (2021) filmak zuzendu ditu. Zinema-irudikapena, feminismoa eta gaur egungo gatazka politikoak lotzen dituzten gaiak ditu ikergai.



### **VALENTINA DESIDERI**

Artista. *Fake Therapy* and *Political Therapy* proiektua jarri zuen abian, eta *Performing Arts Forum* antolatzen du beste kide batzuekin. Idazketaz gogoeta egiten du Stefano Harney eta Denise Ferreira da Silva irakasleekin batera. Idazle eta irakurletzat ere hartzen du bere burua.



### **SAGAL FARAH**

Idazle eta komisarioa SAVVY Contemporary - The Laboratory of Forms-en, Berlinen. Parte hartu du 2019ko Lagosko Bienaleko Komisariotza Programa Intentsiboaren lehen iterazioan.



### **DENISE FERREIRA DA SILVA**

Jarduneari dagoen akademikoa eta artista hau *Toward a Global Idea of Race* (2007) eta *Unpayable Debt* (2021) lanen egilea da. Haren lan artistikoen artean, hauek nabarmentzen dira: *Serpent Rain* (2016), Arjuna Neumanekin batera, eta *Poethical Readings and Sensing Salon*, Valentina Desiderirekin batera.



### **MCKENZIE WARK**

Idazlea eta irakaslea. Kritika kulturaleko saiakerak argitaratu ditu, Internazional Situazionistaren (IS) legatuan ardaztuta, eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiek gure egunerokotasunean eragin dituzten aldaketa sozialak eta kulturalak aztertzeko.